

25 sagardo eta txapel bakarria

Sagardo naturalaren hogeita bost ekoizle aurkeztu dira Gipuzkoako Aldundiak antolatutako V. Sagardo Lehiaketara. Oinarrizko baldintzak gaindituz gero, dastatze fasera igaroko dira eta hor sei sagardogile aukeratu dituzte, Donostiako Euskal Gastronomiako Kofradiako finalerako.

Apirilaren 21a izan zen Gipuzkoako sagardo lehiaketaren bosgarren salo honetara aurkezteko azken eguna. Aurten hogei eta bost ekoizle eman dute izena, lazko kopuruaren oso antzekoa. Lehia horrek, bere seriotasuna dela eta, prestigio handia hartu du. Nabarmendu beharra dago sagardo guztiek, dastatze mailara iritsi baino lehen, laborategi enologiko batean eginiko analisi kimikoa gainditu beharko dutela. Baldintza minimoak betetzen ez dituzten sagardoak norgehiagokatik kanpo geratuko dira. Horren bidez, edariaren osakuntza egokia dela frogatu nahi da.

Lehiaketan parte hartzeko, beste baldintza batzuk ere bete beharra dago. Esaterako, 200.000 litro baino gehiago ekoizten dituzten sagardotegiak bost barrika bete aurkeztu behar dituzte eta kopuru hori ekoiztera iristen ez direnek hiru. Ekoizle bakoitzari, zozketa bidez, barrika bat aukeratzeko zain eta bertatik hartzen da lehiaketarako baliagarria izango zaion azken lagina.

Lehiaketaren antolatzaileak apirilean sagardotegietan zehar jardun ziren aipatu lagin horiek



Gipuzkoako sagardogile lehiaketako izko irabazleak, garaikurra eskuzetan dutela.

hartzen -sagardo motako hamabi botila lehiakide bakoitzeko-. Etiketa eta kortxoak antolakuntzak jartzen ditu, sagardoaren ekoizlearen arrastorik egon ez dadin.

Bigarren fasean, probaketan, epaimahaiak finalean parte hartuko duten sei sagardoak aukeratu ditu. Finala ekainaren 3an izango da, Donostiako Euskal Gastronomiaren Kofradian.

Hamar epaimahaikide izango dira bertan. Lehiaketara aurkeztutako ekoizle bakoitzak epaimahairako bost lagun izendatuko ditu eta izendapen gehien lortzen duen boskotea izango da azken epai-

mahaiko kide. Gainontzeko bost epaileak Gipuzkoako Aldundiko Nekazalguneko Garapenerako Sailak proposatuko ditu. Enologoak, dastatze lanetan adituak, gastronomoak eta antzeko profila duten lagunak izan ohi dira aukeratuak. Garaikurraz gain, lehen hiru postuak lortzen dituztenek honako sariak eskuratuko dituzte: lehenak 1.500 euro, bigarrenak 1.000 euro eta hirugarrenak 500 euro.

Irabazleen zerrenda

Lehiaketa honetako irabazle zerrenda ikaztegiatiko Begiristam

Finala ekainaren
3an izango da,
Donostiako Euskal
Gastronomiaren
Kofradian

sagardogileak ireki zuen, 2002an. Urte hartan bigarren eta hirugarren tokia Gartziategi (Astigarraga) eta Gurutzetarengat (Astigarraga) izan ziren, hurrenez hurren. Hurrengo urtean, Gartziategik irabazi zuen eta ondoren Isastegi (Tolosa) eta Oiarvide (Astigarraga) geratu ziren.

2004ko saioan Adunako Zabala izan zen garaile, Altrueta bernamiarra eta Isastegi ondoren sailkatu zirelarik.

Iaz Gurutzeta izan zen irabazle eta Urdaira (Usurbil) eta Begiristainek eskuratu zituzten bigarren eta hirugarren postua.

URBITARTE
SAGARDOTEGIA

Urte osoan botilak saigai
Eskerrik asko gugan
konfiantza duzuelako

ERGOIENA AUZOA • Tfnoa.: 943 18 01 19
ATAUN

EGi-LYZE

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA

Zamalbide Auzoa
Tel. (943) 52 39 05
ERRETERIA